

UGTk kezka agertu du EAEko Funtzio Publikoaren Mahaian egiteke dauden gaiak pilatzen ari direlako

Sindikatuak Lakuari ohartarazi dio ezin direla 14 puntuko gai-zerrendak ebatzi hiru hilean behin eginiko bi orduko bileretan

2025eko martxoaren 18an

UGT-Euskadik EAEko Administrazioaren Mahai Orokorrean parte hartuko du gaur. Gaur arratsaldean egingo da, Lakuan, eta Enplegu Publikoko sailburuorde Maite Barruetabeñak zuzenduko du. Sindikatuaren ordezkartzatik, UGT-Zerbitzu Publikoetako idazkari Arantza Agote buru izango duenak, jorratzeke dauden gai ugari buruzko proposamenak eta gogoetak jarriko dituzte mahai gainean.

Gai-zerrenda luzea izango da, hain zuzen ere, UGT-Euskadik Eusko Jaurlaritzari egingo dion aurreneko kritika, "bi ordu eskaseko bilera batean hilabete edota urteetako atzerapena daramatzaten gai askori heltzeko ezintasuna" dela eta, 14 punturaino jasotzen duen zerrendaren harira. Horregatik, Agotek bileren egutegia "arintzeko" eskatu dio Lakuari, berebiziko garrantzia duten gaiei aurre egiteko, hala nola erretiro partzialari edo kontziliazioaren arloan konpondu beharreko gaiei.

Bileren iraupena edo bilera horietan egiteke dauden gaiak metatzea alde batera utzita, aurreko mahaia iazko azaroaren amaieran egin zela, eta hurrengo, berriz, aurtengo ekainean izan dela esan beharra dago.

Edukiei dagokienez, UGTk bereziki jorratu nahi du "eta proposamenak egin, funtzio publikoko langile guztiei gehien kezkatzen dieten gaitan, horiek,aldi berean, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko behar den egonkortasuna ematen baitiete". Hala, 2025eko ordainsarien igoerak daude jokoan, aipatutako gai nagusiez gain: txanda-kontratuari lotutako erretiro partziala edo lana eta familia bateragarri egiteko eskubideak lortzeko akordioa.